



# Amabost egun Urgain'en

(Zati bat)

## TXOMIN!...

Ezerezeri begira ta bere txapel bustia esku-artean bira-biraka zerabilkiela, antxe geratu zan Txomin gizajoa, ezur-mami-azal, dana dardar.

Bereala azaldu zan etxeoandrea. Berrogei, berrogei ta bi urteko emakume eder sendo bat zan. Sendoegia aukeran berak zionez. Aberatsa izan arren beartsuak ere anaitzat artzen zekiena. Txiroen artean amaika mesede egiña... Ba-zekien Txomin'ek nora joan bai!

—Gabon Txomin!

—Gabon...

—Ederki busti zera!

—Bai, pixka bat...

—Eta... zer diozu garai ontan? Norbait etxean miñez?

—Ez, ez. Guziok ondo gera...

—Ezbearren bat?... Eseri zaite beintzat...

Txomin'ek zer egiten zuen ere ez zekien. Lurrera begira, ziaro mutututa, nondik asi ez zekiela, alki baten ertzean eseri zan. Erriburu'ren emazteak bereala nabaitu zuen aren izua ta, zer ote zekarren jakinaian, begira-begira geratu zitzaion.

—Zure senarrarekin itz egiteko asmotan etorri naiz... —asi zan Txomin, eznaiz-ba-naiz, bildurrak bezela.

—Eango zizun noski Joxepa'k Bilbo'n dala...

—Bai, bai, baiña nik...

—Emendik egun gutxi barru etortzekoa da. Orduan etorri nai ba'zendu... — erantzun zion itzun-gai bat eman naian bezela.

—Ez, ez! Gaur egin bear degu zerbait!

—Zer gertatzen da ba?

—Jakín al dezu Egurmendi jauna il dala?... — asi zan azkenean Txomin, zirtzart, bere bildur-lotsak alde batera utzita.

—Jakín det, bai. Gizajoa!

—Ba, — zion Txomin'ek geratu gabe — biar lurperatu bear dutela-ta... joan naiz gaur illobia antolatzeke asmotan eta... gauza ikaragarri bat ikusi det.

Arnasa butaku zitzaion. Maritxu, Erriburu'ren emaztea berriz, begiak gañetik kendu gabe, dana begi-belarri zan eta;

—Zer? — galdetu zion larri.

—Jakingo zenuen noski — asi zan Txomin beste ekiñaldi batean — oraindik urte asko ez dirala, Egurmendi gaztearen emaztea il zala? Ba, bere gorputza ikusi det eta... kopetan tiro baten koska dauka!!...

Orra bere barrua ustu!

—Baiña, ezin litekean gauza da oril — erantzun zion Maritxu'k bildurtzen asita — Tiro baten koska?... Ez ote da beste zerbait zuk ikusi dezuna?

—Ez andrea, ez! Zoritxarrez, tiroz ildako batzuk ikusi izan ditut eta ondo asko dakit.

—Eta zuk zer uste dezu? — galdetu zion berriz aserre bezela-tiroz il zutela ala?

—Nik ez dizut orrelakorik esan. Nik gauza dan bezela esan dizut. Besterik ez.

—Baiña... onek esaten ditunak!... Ori ezin liteke gizona! — zion berriz Maritxu'k An illunpeta ez dezu ondo ikusi...

—Illunpetan? Bai zera! Arratsaldeko laurak ziran-eta!... Ez, ez! Ederki ikusi det ilkutxak azkatuta zeuzkan ol ayen tartetik.

Biok ixillik. Txomin gero ta lasaiago.

Maritxu gero ta larriago. Lasaitasuna ta alaitasuna, gauzen mamia ta indarra bezela, berez sortzen ez diranak ote dira ba? Batetik bestera ibilli arren, inoiz ere deusezten ez diranak ote dira ba? Bat lasaituala bestea larritu; bat poztuala bestea atsegabetu?...

Ori dala edo, esan oi dan bezela, «dringilin don bataren gaitza bestearen on» dala edo, Txomin beintzat, bestearen larritasuna ikusirik, lasaitzen zijoan. Askoren miña txiroen atsegiña...

—Illobian sartu ta gero ez zioten ba ezer egingo noski... — asi zan berriz Maritxu.

—Ez det uste.

—Ortaz...

—Ortaz... — erantzun zion Txomin'ek, — bestearen oyartzun, bizi-bizi begira.

Berriz biok ixillik. Maritxu'ren burua lan gogorrean zebillen orratik! Nola buruan sartu bat-batetan arrigarrikeri ura? Sorgiñak eta mamuak ikusi zituela esan izan ba'lio ere, ez zan ainbeste arrituko. Aspalitik ziran Egurmenditarrekin aizkide; us-tez beintzat ondo asko ezagutzen zituzten, eta... emakume ura tiroz illa? Inoiz ere ez zuten orrelakorik esan-eta!... Orrela izan zitekeanik inori bururatzea ere!... Egurmendi zarra, bart arratsean ildakoa, ain elizkoia! Bere semea, orain nagusi geratu zana, ain zintzoa! Eta... orain au?

Egia esan, Maritxu'k ez zuen emakume ura ezagutu, bera Urgain'era bizitzera etorri baiño len illa zan-eta, baiña... berak

ziona; Egurmendi'ren emaztea izateko (zolakoari alako), ez ote zan ba onen idekoa izan? Nola ez ba? Eta... tiroz illa ura? Eta Egurmenditarrak ezer esan ez? Bai ote!...

—Biar edo etzi emen izango da nere senarra ta berak ikusiko du zer egin... — asi zan berriz Maritxu, erdi-ametsetan bezela.

—Ez degu ezer egitekorik izango biar edo etzi. Biar goizean Egurmendi zanaren gorputza lurperatzera daramatenean, edornork ikusi lezake ori, ta... orduan zer?

—Egia!... Au lana!... Goxoa jarriko da Egurmendi ori azal-tzen danean! Baiña... zer egin genezake?

—Zuk ikusiko dezu, baiña nere ustez gaur egin bear da egitekoa.

—Au da au!...

Nondik atera ote zuen Txomin'ek gaurko ausardia? Noiztandik Txomin, betiko galtza-zar, Egurmendi'ren emazteari zer egin bear zan esanaz?

Arratsaldeko laurak ortxe-ortxe ziran arrigarrikeri ura ikusi zu-nean eta orain seiak joak. Bi ordu luze ayetan, amaika bira eman zizkion bere buruari! Ederki txorabildu zan! Bere lotsa alde batera utzi ta, ba-zirudin gizontasun berri bat bereganatu zuela-ta! Ba-zirudin bera nor zan ere, ez zekiela-ta!...

Maritxu ez zan irten oraindik lenbiziko biotz-ikaratik. Burutik oñetaraño, dana izoztuta geratu bait-zan! Ederra ekarri zion Txomin'ek alajaña!

—Gaur bertan diozu?

Orduantxe atea kax-kax jo ta Joxepa azaldu zan;

—Meriku berria da. Zutaz galdezka dator —zion Maritxu'ri begira.

—A bai?... Sartu dedila! —erantzun zion onek ergelki.

Eta, Txomin'i begira;

—Nere errikoa da. Gure aitonak lengusu izanak edo... —zion Joxepa aren billa joan zan bitartean.

—Jaungoikoak arratsalde on dizutela! —zion bereala atean azaldu zan gizaseme dotore batek. Apain-apain jantzita zetorren. Eta ollar bat anka baten gañean bezela, unetxo batean, antxe ate ondoan, tente-tente geratu zan.

Lau illabete lenago Urgain'era etorritako sendakin berria zan; sendakiña zan aldetik, sendakin ona ta jakintsua; gizona zan aldetik, alai; batzuk ziotenez buru-ariña ta aundinaia.

—Baiña... zer dezu? Ez al zaude ondo? —asi zan bereala Maritxu'ren arpegi luze ura ikusi orduko. Eta beregana etorri zan.

—Bai. Ni bai...

—Txuri-txuri eginda zaude-ta!

—Ez da arritzekoa!... Ona emen Txomin... Emengo lurperatza-lllea da...

Eta... orra!! Ezin ixillik egon, lertu bear, eta au dala ta ura dala... onek ere, dringilin-don, Txomin'ek esandako guzia azaldu zion.

Larrola sendakiña ere, Maritxu'ri berri ayek entzunda, Egurmenditarrak ikustez bakarrik ezagutu arren, arrituta geratu zan. Ayen artean orrelakorik! Ez al zan ba sendi ura erriko oneneta-koa? Ez al ziran ba guziokatik ondo ikusiak? Ayek non etsairik?

—Eta zer egin? —zion berriz Maritxu'k.

—Poliziai salatu... —asi zan Larrola.

—Naspilla ederrean sartu bear ditugu Egurmenditarrak!

—Zer nai dezu ba? Berari esan?

—Ez, ez! Jaungoiko maitea!... Naigabe ederra eman bear ge-nion alajaña!

—Zer ba? Dana bere ontan utzi?

—Ez... ez... —«bai... bai...» esan naian bezela.

—Ortaz poliziai esan besterik ez dago.

—Poliziai diozu? —zion Maritxu'k kopeta eskuz joaz— Zaude, zaude! Lenago ez gogoratzea!...

Zuzenean urrutizkiña artzera joan zan. Beste biok zertara zijoan igerri gabe, begira-begira geratu zitzaizkiola, deia egin zuen, eta;

—Garaidi jaunaren etxea al da?... —zion—. Etxean al da be-ra?... A! Martin al zera? Maritxu naiz, Erriburu'ren emaztea... Bai, bai, oso ondo. Zuek ere bai?... Bai Bilbo'n da... Ba, zure bearrean naiz... etorri al zinteke? Bai, bai, gaur bertan... Ezet ba ezet, guziok ondo gerala! beste gauza bat da... Gero esango dizut... Etorriko al zera?... laster?... ederki, ederki, eskerrik asko ta gero arte. Agur.

—Nere senarraren Donosti'ko aizkide on bat zan —zion berriz besteengana etorrita—. Bere buruz lapur ta eraille billa jarduten

dana. Oso azkarra ta gauza oetara oitua. Onek esango digu zer egin. Bai! Onek!... Eta bereala datorrela dio. Emen da ordu erdi barru...

—Ortaz ni ba-noa... —asi zan Txomin igeska bezela.

—Ez, ez! Egon zaite ori etorri arte!

—Nik esan dizut dakidan guzia; orain zuek ikusiko dezute zer egin. Nik ez nuke nai sasibidetan sartu...

—Ez zaitu iñork sasibidetan sartuko Txomin! Ez zaitezela orre-lakoa izan! Itxoin ezazu Garaidi etorri arte, zerorrek obeto esango diozu ikusi dezun guzia-ta!... Tira, tira! Goazen sukaldera ta, ori etorri bitartean, artuko dezu txistor puska bat... Aurki degu emen...

Eta Joxepa'ri ezer ez esateko agindu ta gero, sukalderaño la-gundu zion. Ez zan antxe gogoz geratu! Garai onean ari txisto-rra!...

J. A. LOIDI BIZCARRONDO

## Estadísticas de Rentería

POBLACION DE HECHO ..... 18.642

Varones ..... 9.076

Hembras ..... 9.566

PRODUCTORES:

Agrícolas y forestales ..... 670

Del mar ..... 150

Extractivas ..... 113

Construcción ..... 324

Madera ..... 258

Textiles ..... 324

Alimentación ..... 101

Cueros y pieles..... 2

Siderurgia y metalurgia..... 1.823

Ferrovianos ..... 25

Transportes por carretera ..... 46

Comercio en general ..... 675

Profesiones liberales ..... 94

Otras industrias ..... 1.385

Profesiones otras ..... 140

TOTAL ..... 5.630

INCREMENTO DE POBLACION:

1900 ..... 4.081

1934 ..... 7.519

1945 ..... 10.518

1955 ..... 14.964

1960 ..... 18.642

VIVIENDAS:

Desocupadas temporalmente ..... 23

Ocupadas ..... 4.059

Vacantes ..... 119

SUMAN ..... 4.201

Número de hogares..... 4.341

Viviendas que faltan ..... 140

Viviendas en construcción en Junio de

1961 ..... 491